

Elkartasunaren jaia Bilbon

Deia, 1977-09-06.

Aspaldi ez zen honenbeste euskal talde politiko ibilaldi batean elkarrekin ikusi.

Eratzaileak esan dutenez, 30 izan dira ibilaldi handi hau osatu duten alderdiak, talde politikoak, langile elkarteak eta beste erakunde batzuk: 250.000 pertsona inguru.

Honek ez du esan nahi ibilaldi hontan nolabaiteko batasuna lortu denik. Nahikoa da hor agertu ziren pankartak esaten zituztenak irakurtzea eta ohiukatu zirenak entzutea, konsigna hoietaz ez direla denak bat egongo konturatzeko. Gero, amaieran esan zirenak ere ez dakit han ziren denak osorik onhartu zituzten.

Baina, amets hau egiaztatzekotan, uniformismo gisako batasuna adieraziko zukeen, eta gizon aske mailan ez dugu batasun hori nahi.

Denak "Amen"-ka jarri ez.

Euskaldun askok nahi genukena, ezberdin garen gizemakumeak ezberdin pentsa eta joka arren, goi mailako arazo nagusietan nolabaiteko elkarte baten bidez Euzkadi-ren osaketarako izango diren gauza bakar batzu elkarrekin egitea.

Hau hain zaila ote da ba?

Gehien erabili diren hiru konsignak, Aministia, Autonomia eta Askatasuna izan dira. Hiru A-z adierazi genitzake. Ezin al dugu, honta behintzat, arau negusi batzu hoiek labor eta zehazki elkarrekin idatzi eta hitzen izpiritua onhartu?

Hau ez da arazo berria, oso zaharra baizik; ba dakit.

Baina ez dugu etsi behar.

Orain Bilbon lortu denaren egokiera hau ona da arazoa berriz ere planteatzeko: sobiet-amerikarrak behin eta berriz hortan jarraitzen badute (eta honetxegatik bizi gara, apika), Elizen buru direnak etengabeko ahalegin honi lotuta ari badira, Israelgo arazo larrian berdin, katalan artekoak ere bai, zergatik ezin dugu hau behin eta berriz planteatu? Erabaki arte.

Eta garaia, ezin egokiagoa.

Hemen dator Autonomia-aurreko eta gero Autonomia osoaren borroka laster, hemen ditugu gure herrirako garrantzi handia, izugarria, izango duten hauteskunde municipalak. Jokoa, handia da. Asko dihoakigu datozten hil hoietan erabakiko den hontan.

Ez batasunik; baina elkartasun nagusi bat, zergatik ez?